

Q S U K A R R A

ZER DA Q SUKARRA?

Q sukarra mundu osoan hedatuta dagoen gaixotasun zoonotikoa da. Behi-, ardi- eta ahuntz-azienda dira gaixotasunaren gordailu naturalak, bai eta zenbait ugaztun ere, etxeokak zein basatiak: txakurrak, katuak, untxiak, txerriak, zaldiak, gameluak, uretako bufaloak, arratoiak, saguak eta beste. Horiez gain, hegaztiak eta 40 artropodo espezie (akainak) baino gehiago ere izan daitezke gordailu. Etxeko hausnarkariak dira Q sukarra gizakien artean kutsatzeko iturri nagusia.

Gizakien Q sukarra gaixotasun infekzioso akutua da, eta *Coxiella burnetii* bakteriak, *Coxiellaceae* familiakoak, eragiten du. Bakteria horrek honako gaixotasun hauek sorrarazten ditu: pneumonia (biriketako infekzioa) eta hepatitis (gibelaren hantura) fase akutuan eta endokarditisa (bihotzaren hormako edo balbulako endokardioaren hantura, batik bat balbulakoarena) gaixotasuna kroniko bihurtzen bada. Haurdunetan abortuak izatea, haurrak lehenago jaiotzea eta jaio berriek pisu txikia izatea eragiten du Q sukarrak.

SINTOMA KLINIKOAK HAUSNARKARIETAN

Ardi- eta ahuntz-azienda kutsatuak honako sintoma hauek izan ditzake ernaldiaren amaiera aldera: abortuak izatea, kumeak lehenago jaiotzea edo kumeak maskal edo hilda jaiotzea. Behi-aziendan, berriz, metritis, abortuak, antzutasuna, txahalak pisu txikiarekin jaiotzea, bai eta pneumonia ere.

Kumedun ez dagoen behi-, ardi- eta ahuntz-aziendan *C. burnetii*ren kutsadurak ez du sintomarik eragiten gehienetan (erantzun serologikoa izan dezake ala ez) eta bakteria iraitzi dezakete.

ANIMALIA TALDEEN ARTEKO KUTSADURA

C. burnetii bakteria airearen bidez hedatzen denez, abortatzean edo erditzean, animalien arteko kutsadura eta taldeen arteko transmisioa gerta daiteke; are gehiago, kutsadura geroago gerta daiteke. *C. burnetii* bakteria oso erresistentea denez beroaren eta lehorketaren aurrean, 150 egunez iraun dezake bizirik eguzkitan. Kutsatutako plazenta larrean utziz gero edo

gorotza edo purinak sakabanatuta egonez gero, handik hainbat kilometrora dauden animalia taldeak kutsa daitezke.

Halaber, akainek ere transmititu ahal dute gaixotasuna. Q sukarraren bakterioa, batik bat, arnas bideetik sartzen da. Ez da antzeman, ordea, begi bidezko kutsadurarik (oso garrantzitsua bruzelosiaren eta klamidiasiaren kasuan).

Gaixotasunaren sintoma klinikoak gizakietan

Q sukarrak oso sintoma kliniko ezberdinak eragin ditzake, eta horregatik da diagnostikatzen zaila. Gaixotasunaren historia naturalak jatorria du immunea ez den gizakiaren eta *C burnetii* bakterioaren arteko kontaktuan. Uste da kutsatutakoen % 60k ez dutela sintomarik izaten; baina, batez beste, 20 eguneko inkubazio-aldia igaro ostean, gainerako % 40ak garatzen du gaixotasuna, eta horiek Q sukar akutua izaten dute. Sintoma klinikorik ohikoena **sasi-gripearena** izaten da. Baina, normalean, berez sendatzen da. Nolanahi ere, batzuetan, koadro kliniko akutuz gain, pneumonia, hepatitis, eta sintoma bereziagoak (kardiakoak edo neurologikoak) ager daitezke. Pneumonia da **Euskal Herrian**, Eskozi Berrian (Kanada), Suitzan eta Erresuma Batuan antzemandako koadrorik ohikoena.

Q SUKARRAREN PREBALENTZIA ANIMALIETAN

Espanian hainbat ikerketa egin dira animalietan seroprebalentziari buruz: Kanariar irletan ahuntz-aziendaren % 60,4 dago kutsatuta, eta behi- eta ardi-aziendaren % 31,7 eta % 12,2 da seropositiboa, hurrenez hurren (Rodríguez et al. 2010); Madrilan, azken datuen arabera, ahuntz-, ardi- eta behi-aziendaren % 23,6, % 24,2 eta % 3,7 da seropositiboa, hurrenez hurren. Alde handia dago azken datu horien eta 1989. urtean argitaratutakoen artean; izan ere, 1989an ahuntz-aziendaren % 76,6 eta ardi-aziendaren % 17,7 ziren seropositiboak.

Prebalentzia EAEn

Euskal Herrian erabilera estentsiboko hausnarkarietan *C burnetii*ren hedapenari buruz egin berri duten serologia-ikerketaren arabera, egiaztatu egin ahal izan da ardi-aziendako ustiattegietan seroprebalentzia altuagoa dela (% 73,9) haragitarako behi-aziendan baino (% 42,9) edo ahuntz-aziendan baino (% 45,5). Halaber, banakako seroprebalentzia altuagoa da ardi-aziendan (% 12,3) gainerako espezieetan baino (ahuntz-aziendan % 8,3, eta haragitarako behi-aziendan % 6,6). Esnetarako behi-aziendari dagokionez, ustiattegien % 48,2k dute animalia seropositibo bat

gutxienez, eta batez besteko banakako seroprebalentzia % 6,5ekoa da (argitaratu gabeko datuak).

Ahuntz- eta behi-aziendan antzemandako seroprebalentzia ardi-aziendarena baino baxuagoa bada ere, emaitzen arabera, espezie horiek ere garrantzia izaten dute Q sukarraren eta gizakiaren arteko kutsaduran etxe esparruko zikloan. Q sukarra diagnostikatu den ustiategietan, antzeman da seroprebalentzia % 50ekoa dela ardi-aziendan eta % 50ekoa behi-aziendan. Etxeko hausnarkarrietan kutsatutako animalien portzentaje bat ez da seropositiboa izatera heltzen.

Espeziea	Seroprebalentzia ustiategietan		Banakako seroprebalentzia	
	Kopurua	Positiboen kopurua (%)	Kopurua	Positiboen kopurua (%)
Esnetarako behi-azienda	193	93 (48.2)	2.692	176 (6.5)
Haragitarako behi-azienda	42	18 (42.9)	618	41 (6.6)
Ardi-azienda	46	34 (73.9)	1.298	160 (12.3)
Ahuntz-azienda	11	5 (45.5)	109	9 (8.3)

Ruiz-Fons et al. BMC Veterinary Research 2010, 6:3

GODAILUEN ETA GIZAKIEN ARTEKO KUTSADURA BIDEAK

Kontaktu zuzena eta estua izatea kutsatutako aziendarekin

Adierazi den bezala, hiltegi batean antzeman zen gaixotasun hori. Horrek eta ondoren egindako zenbait behaketek argi adierazten dute lanaren bidezko esposizioa (abeltzainak, albitariak, hiltegi-tako langileak, azienda garraiolariak, eta abar) **dela gizakietan Q sukarraren broteak izateko arrazoi nagusietako bat**. Horixe da, oro har, bide nagusia; baina, azpimarratu egin behar da hala izaten dela espeziearen, kontaktuaren, maiztasunaren eta intentsitatearen eta animalien egoera fisiologikoaren arabera.

Noizbehinkako kontaktu zuzena edo zeharkako kontaktua izatea animaliekin

Kutsadura-bide horrek bere baitan hartzen ditu landa eremuko herriak, txangozaleak, ustiategietako bisitariak, ehiztariak eta beste. Brianconen

hiltegi baten inguruan antzemandako Q sukarraren brote handia hiltegiaren higie-ne-egoera kaskarrak eta hiltegia mugimendu handiko heliportu batetik gertu egoteak eragin zuten. Valaisen, berriz, 400 kasutik gorako brotea lekualdatzen ari zen artalde batek eragin omen zuen. Madrilen duela gutxi ikasleen artean antzemandako brotearen arrazoia abeletxe-eskola batera egindako bisita izan zela adierazi zuten. Alemaniako broteari dagokionez, zehaztu zuten azoka batean 2. egunean ardi bat kutsatu gabeko bi arkumez erditu eta brotea eragin zuela bisitarien eta parte hartzeen artean. Kasu horretan, adierazi zuten haizeak ez zuela eraginik izan.

Esnea eta beste elikagai batzuk kontsumitzea

Kutsatutako animalien esnean maiz *C. burnetii* antzeman badaiteke ere, **temperatura altuko ohiko tratamenduek eta gaztak ontzeak kutsadura murriztu edo desagerrarazten dute**; beraz, aintzat hartuta saguen arteko kutsadura sortzeko dosiek beste bide batzuetan baino askoz ere handiagoak izan behar dutela, esan daiteke elikagaien bidezko kutsadura ez dela gaixotasuna transmititzeko bide garrantzitsua.

Kontaktua izatea basa animaliekin eta artropodoek ziztatzea

Espezie horietan ezin izan da egiaztatu *C. burnetii*ren kutsaduraren prebalentziak **Q sukarraren brote handiak eragiten dituenik**. Baina baliteke izatea gordailu etxeko abereentzat, eta azken horien bidez kutsatuko litzateke gizakia. Nolanahi ere, etxeko abereentzat gordailu izatea garrantzitsua izan daiteke kutsadura kontrolatzeko ekoizpen abeletxeetan.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- OIEren gidaliburua: Lehorreko animaliak. Q sukarra.
- Q Fever
- Incidence of Ovine Abortion by *Coxiella burnetii* in Northern Spain
- EFSA Scientific Opinion on Q fever
- Seroepidemiological study of Q fever in domestic ruminants in semi-extensive grazing systems